

Bizkaiko Foru Aldundiak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia egin du. Deialdia azaroaren 2ko BAO n argitaratu da (urriaren 22ko 2527/2021 Foru Agindua).

Nork har dezake parte deialdi honetan? Deialdi honetara aurkeztu ahalko dira bai funtzionarioak, karrerakoak nahiz bitartekoak, bai lanhitzarmen finkodunak. Aldi baterako kontratua duten langileak ere aurkeztu ahal dira, baldin eta eskabidea egiteko epearen barruan kontratua indarrean badute.

Nola egin eskabidea?

Eskabidea egiteko, jo helbide honetara:

<http://app.aldundia.bfa/apps/danok/KJ00/euskara/>.

Eskabide-inprimakia ondo bete duzun jakin nahi baduzu, sakatu "**Eskabideen kontsulta**" botoia.

Azterketa-probei buruzko informazioa laneko posta elektronikora igorriko da. Informazioa beste helbide elektronikoren batean jaso nahi baduzu, eskabide-orrian zehaztu ahal izango duzu.

- Baliabide informatikorik izan ezean GUFeko trebakuntza eta euskara arloan egingo da (944067657 telefonoan).

Eskabidea egiteko epea

Eskabidea egiteko epea 2021eko azaroaren 3an hasi eta 12an (biak barne) bukatuko da.

Azterketa-probak

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko prozesuak bi azterketa ditu: idatzia eta ahozkoa. Azterketa idatzian irakurmena eta idazmena neurtuko dira, eta ahozko azterketan, mintzamina eta entzumena.

Derrigorrezkoa da trebetasun guztiak gaituztea azterketa gaituzteko.

Emaitzak

Azterketa-proben emaitzak posta elektronikoz jakinaraziko dira, edo intraneteko orrian ikusi ahal izango dira.

Azterketaren emaitza gordetzea

- Irakurmena, idazmena eta entzumena gaituzten duten izangaiak salbuetsita egongo dira gaituzteko trebetasun horiei dagozkien ariketak egiteko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira mintzamenaren azterketara.
- Aipatu salbuespenaren barruan eta baldintza berberetan egongo dira IVAPen aurreurreko deialdian aurkeztu eta, lortutako emaitzen arabera, egoera berean aurkitzen diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen zerbitzuean diharduten langileak ere.
- Mintzamina, irakurmena eta entzumena gaituzten duten izangaiak salbuetsita egongo dira gaituzteko trebetasun horiei dagozkien ariketak egiteko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren hurren-hurrengo deialdian. Hortaz, zuzenean aurkeztuko dira idazmenaren azterketara.

Hala ere, izangai horiek probetarako izena eman beharko dute hurren-hurrengo deialdian eta dagokion epearen barruan.

Ziurtagiriak non jaso Azterketa hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek IVAPeko zuzendariaren ziurtagiria Azterketen bidez izango dute eskura (kontsultak/IVAP HE ziurtapenak), inprimagarria den euskarri digitalean. Era berean, ziurtagiri digitala eskuragarri izango da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, «nire karpeta» atalean. Paperean ere jaso dezakete interesatuek, IVAPi idatziz berariazko eskaera eginez gero.